

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

Amurrioko, Aiarako eta Artziniegako udalerrietan 2025eko ekitaldiko hirugarren hiruilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien kontribuzio-errola

Amurrioko, Aiarako eta Artziniegako udalerrietan 2025eko ekitaldiko hirugarren hiruilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien errola prestatuta, publikoarentzat ikusgai jartzen da hamabost egun balioduneko epean, ALHAOn iragarpen hau argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek komenigarriak kontsideratzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik egongo ez balitz, errola behin betiko onartutzat emango litzateke.

Edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifen kobratze-epeak:

A.) Epe boluntarioa: 2025eko abenduaren 5etik 2026ko otsailaren 4ra, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza-erakundeetan kargatuko dira 2025eko abenduaren 5ean.

B.) Kobratzeko epe exekutiboa: 2026ko otsailaren 4tik aurrera hasiko da epe exekutiboa, erre-kargu exekutiboak sortuz, premia murriztu eta premia arruntekoak, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Ribabellosa, 2025eko urriaren 28a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES